



Musa, euskara eta Korrika.- Usurbil eta Lasarte-Oriako AEK-ak antolatuta, Korrikaren atarian gauden honetan mus txapelketa antolatu zuten Xirimiri elkar-tean larunbata arratsaldean. Guztira bederatzik bikote aritu ziren nor baino nor enbidoka, eta azkenean Aitor Azkonobieta eta Haritz Arregik irabazi zuten txapelketa. Finala Martin Vicioso eta Iñaki Maiz-ek osatutako bikotearen aurka jokatu zuten eta hauek 3-1 aurretik jartzea lortu arren, Azkonobieta eta Arregik markagailua iraultzea lortu zuten azken unean 3-4 irabazteko. Orain, martxoaren 16an arratsaldeko 17:00tan Andoainen egingo den finalean erakutsi beharko dute zenbaterainoko maila duten, gainontzeko herrietako txapelkunekin batera egingo den mus txapelketa berezian izango baitira. Esan bezala, herriko Munterri euskaltegiak eta Usurbilgo Etumetak elkarlanean antolatutako ekintza izan zen mus txapelketa, baina aurreko astean Usurbilen izan ziren herriko bost gazte talde, guztira 40 bat lagun, altxor-raren bila jolasa egin eta euskara bihotzetik ahorratzeko. Hemendik aurrera Korrika Kulturalaren barnean antolatutako ekintzak egingo dituzte AEK-ko kideek. Geroz eta gutxiago falta da martxoaren 14an Andoainen hasi eta 24ean Baionan amaituko den Korrikari hasiera emateko, guztira 2.147km dituzte aurretik euskaltzaleek!

4 OSPAKIZUNA

Andaluziaren eguna ospatuko da

Lasarte-Oriako Semblante Andaluz elkarteak Andaluzia Erkidegoko eguna ospatzeko egitaraua antolatu du Atsokabar auzoko bere egoitzan. Ospakizunak otsailaren 28an, Andaluzia egunean bertan hasten dira. Denetarik izango da guztiak gozatu ahal izateko, hala nola, Semblante Andaluz elkarteko taldeen emanaldiak edo Merche Montes-en kontzertua.

5 ELKARTASUNA

Aitor Landa herritarra laguntzen

Lasarte-Oriako Udalak eta Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek elkartasun jaialdia antolatu dute martxoaren 9an. "Sentitu, pentsatu, ekin" emanaldiko bi saioa eskainiko dituzte. Sarreretako dirua Aitor Landa herritarren gurasoei tratamendua ordaintzen laguntzeko izango da. Kukuka eta Jalgune elkarteok lagunak ere izango dira saioetan.



6 KIROLA

Euskadiko txapelkun berriak herrian

Buruntzaldea Igeriketa Kirol taldeko eta LOKEko atletismo saileko gazteak lehengo asteburuan, otsailaren 16 eta 17an, Euskadiko txapelketetan izan ziren lehian. Jon Ander Bruño, Yeray Veroniz, Eneritz Busto eta Itsaso Tolosa izan ziren Euskadiko txapelkun. Hauetaz gain, bi taldeetako kideek hainbat domina eskuratu zituzten.

Bideo Lagunak
TIEN 21
Etxekotresna elektrikoetan adituak

10 EURO OPARI

ZANUSSI
GARBIGAILU
1000 rpm · 6 kg
Eskaintza

10€-ko beharpena egingo dizugu zure hurrengo erosketan produktu hau erosi edo Facebook-ean Bideo Lagunak-en lagun egiten bazara

289€

Eskaintza gehiago Facebook-ean, Jarrai gaitzazu!

Me gusta

Donostia etorbidea 2 · Lasarte-Oria | Tel: 943 37 31 34 | www.bideolagunak.com

Adituak dio



Ibon Telleria
Arkitektoa

Mitxel II, Lasarte-Oriako hirigintza garapen korapilotsuaren hurrengo kapitulu izango dela dirudi.

Udalerrri gazte honek, Oria ibaiak mendebaldera biratzen dueneko bailara tarteen kokatzen da, alboko bailarako herriek, Hernani, Urnieta eta Andoain, amore emandako lurretan.

Aurreko mendean izandako hazkuntza neurrigabeak ia guztiz trinkotu zuen herri-gunea, non neurri handiko bizitza multzoak kolpeka eta inongo plangintzarik gabe Brigitarren komentua inguruan txertatu ziren. Mende honetan egin diren interbentzioak ere, udaletxearen handipena lekuko, norabide garbirik gabe gauzatu dira, herri-gunea antolatuzeko aukera paregabea galduz.

Aurretik jasotako "herentziek" zama astuna suposatuta dute dudarik gabe herriaren konfigurazean, baina ondoren ere honek, edo bere ordezkariak, ez du/dute azaldu kudeaketarako gaitasunik; kanpoko faktoreak eraginkorragoak izan dira hirigintzaren norantza bideratzerakoan barneko faktoreak baino.

Nolako herria izan nahi du Lasarte-Oriak? Eta honen arabera, zein da bere funtzionamendua? Goiko ikuspegi batetik hasi behar du behingoz bere burua begiratzeko eta handik aurrera, gertatuko diren aktuazio puntual guztiak bide horretan jarraitu beharko lukete. Modu honetan bakarrik inguruarekiko izango duten eragina neurtuta eta menderatuta lego.

Beraz, Mitxel II orubean industria gunea? edo merkatal gunea? Ondorengo atalean dauden galderak dira hauek. Aurretik, garrantzitsuagoak diren beste batzuk erantzun beharko ditu Lasarte-Oriak, barrutik, bere epidemia nolakoa izan behar duen jakiteko.

Herritarrak kontutan hartuz

Asko dira Udalak, sail ezberdinetan martxan jarritako parte-hartze prozesuak. Herritarren iritzia jaso nahi dituzte, auzoetako kezak, plaza eta kale berriak izendatzeko galdeketa, udalaren irudi berria hautatzeko prozesua...

Azken galdeketa ordea haratago doa. Michelin II gunean proiektu bat aurkeztu du Michelin fundazioak eta honen aurrean herritarren iritzia ezagutu nahi du Udalak. Iritzi hau ez da erabakiorra izango. Merkatal-industriagune berri bat kokatu nahi dute herrian, eta hau ahalbidetzeko Udalaren esku dago lurren kalifikazioa aldatzea. Krisi ekonomiko garaian ordea zaila da halako erabaki bat hartzea. Udalari proposatzen zaion proiektuan lanpostu zuzenen sorrera aipatzen da. Gai delikatua da, jendeak lana behar du, fami-

lia askoren egoera zaila da eta honen aurrean egin dezatela nahi dutena, edo hori pentsatuko zuten askok, nahi dutena baldin eta horrek guri, bizilagunari lana ekartzen badiu.

Bizi dugun testuinguruan ahaztu daiteke herriak akaso lur horietan beste zerbait beharko lukeela; eraikiko diren bulego horietara inor ez badator, edo ez behintzat enpresa nahikoak, zer? Pentsatuko dugu gaian mugilduta dauden teknikari, politikoeak... ondo aztertuko dutela proiektua erabakia hartu aurretik izan ere, herritar askoren kasuan behar-arak agintzen du.

Hala ere, ondo dago herritarrei gehiago galdetzea, kontutan izatea, udal agentariak ahaztu ez dezaten herritarrek izendatu dituztela euren ordezkari eta ez alderantziz.

Hitz eta pitz

Zer iruditzen zaizu MichelinII eremuan merkatalgunea jartzea?



Martin Negrodo

Gehiegi dira, ez du emaitza onik ekarriko. Lehendik ere jota diren denda txikiak gehiago hondoratuko dira. Neumatiko gehiago egin eta langabezia gutxiagorekin herria hobeto biziko litzateke. 33 urtean aritu nintzen han, lan asko zegoen, hiru mila langile baino gehiago ginen, denda eta tabernak oso ondo bizi ziren, denentzat zegoen dirua. Jartzeko-tan industria jarriko nuke.



Antonio Ruben

Entzun dut merkatalgune handi bat etorriko dela, eta enpresa batzuek erretiratu direla. Espazio hori geldo dago eta zerbait egin behar dago. Herriarentzat igarileku edo beste zerbizuren bat jartzea ere ondo dago. Lanpostuak sortzea da gakoa, pentsa zenbat gazte dagoen langabezia! 150-200 sortuko balira... eta herrikoentzat. Bestela, ez dugu ezer egiten.



Jon Mikel Rodriguez

Herri honetan arrazoizko alokairuan jartzeko etxebizitzaren beharra dago, saltzeko baino modu merkean gazteentzat alokatzeko. Babes Ofizialeko Etxeak egiten badira ere, gazte askok utzi egiten ditu ezin duelako hipotekatu. Merkatalgunea soberan dago, ez da bidezkoa, herriko denda eta komertzioa suntsitzen ari den makro-merkatalgune bat badaukagu.




Laura Igea

Zertarako hainbeste merkatalgune? Egia da lanpostu batzuek sortuko dituela, alde horretatik ondo dago, lanpostuak gaur egun behar beharrezkoak dira eta. Dena den, ez dakit proiektuari buruz ezer. Badakit espazio bat dagoela hor hutsik, baina ez dakit industriak edo merkatalguneak jarriko dituzten. Zerbait egin dezatela, ez dadila alperrik hutsik egon.

Iruditan

Michelin 1934tik



Fabrika guztiz bukatu gabe dago irudi honetan, fabrikaren handitasuna bereizten da ondo.

Michelin enpresak Beasain eta Lasarte artean hautatu behar izan zuen bere fabrika eraikitzeko gunea izan ere, Compañía de Ferrocarriles del Norte-ren lur sailak ziren biak. Usurbil eta Hernaniko lurrak hautatu zituen azken enpresa frantziarrak eta 1932ko iraillean eskrituratu eta lanak hasi zituen. Lur zati bat Tejada jaunari erosi zitzaion ere bide bat zabaltzeko, fabrika eta errepidearen arteko lotura egiteko. 1934ko urtarrian jarri zen martxan eta orduan eguneko 250 gorpil egiten ziren auto, kamioi eta bizikletentzat. Langile kopurua handitzen joan zen lehen krisia iritsi arte.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



Lasarte-Oriako Udala

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikulueta edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA



GFako Kultura eta
Euskara Departamendua

Argitaratzailea:

Ttikon Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7800

txintxarri

Erredakzioa:

Nerea Eizagire, Jon Altuna I.,
Maider Azumendi, Jon Altuna E.
txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Artola
publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoz, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Armuti,
Asier Odriozola, Jone M.
Hernandez, Oihana Salazar,
Pako Aizpitarte, Edu Galardi

Informazioa:

Xabier Amadoz

KULTURA



Franco hil osteko garai gorabeheratsuak antzeztu zituen "Dejabu" panpin laborategiaren proposamen interesgarriak ostiralean.

Kulturak herria maite du

Kultur etxean "Gure Bide Galduak" antzerkiak gozatu zuten herritarrek

Denetarik izan zuen Manuel Lekuonan antzeztutako "Gure Bide Galduak" obrak. Momentu gordinak batetik, 70eko hamarkada zaileko zahar eta gazteen ezinegon eta buruhausteak, baina baita umore zertzeladak ere, frankismotik at eta erregimenaz haratago, norberaren baitan eta era kolektiboan mundu txikiak erakitzerik badagoela erakutsi baitziguten bost aktoreek. Zuzeneko musikaren indarra ere sentitu zuten hurbildu ziren ikusle apurrek, gitarra baten sokek aktoreen lanari atxikita sor dezaketen unibertsoak txundituta utzi zuen bat baino gehiago.

Jalgiko egitarauaren bamean Iñigo Muguruza musikari ezagunaren "Lurra" bandak dantzan jarri zuen kafe antzokia. Bistakoa zen Sagarroi tal-

dean batera ibilitako Karlos Zubikoa baxu-jolearekin zeukan konplizitatea eta 18 urteko Ane Garcia eta Ander Larrañaga neska-mutil gazteek euren

adinerako sekulako ahotsa eta perkusioaren nozioa zituztela erakutsi zuten ostiral gauean.

Anai Arrebak eta Makala

Bigarren urtez, hasiera eman zitzaion Kultur Kale Zikloari Abend-eko kontzertuekin, Makala Jazz Funk Band eta Anai Arrebak aritu ziren bafleei dezibelioak ateratzen.

Ostiral gaua hotz xamar hasi arren, kontzertuek aurrera egin ahala giroa berotzen joan zen eta ederki pasa zuten musika onaz gozatzeko hautua egin zuten ikus-entzule urri, baina adituek.



Iñigo Muguruza iruindarraren azken proiektua da "Lurra" taldea, Makala DJ ezagunak berriz, Jazz Funk Bandarekin dihardu.

Argi eta Iñaki gogoan, 10 urte geroago



San Pedro elizaren aurrean bildu ziren 50 lagunek duela ia 10 urte auto istripuz hildako Argi eta Iñakiren argazkiak erakutsi zituzten.

Herrirak deituta, hilabete bakoitzeko azken ostiralero lez, 50 lasarteoriatarrek elkarretaratzea egin zuten Euskal Herriko beste hamaika txokotan bezala. Otsailekoa ordea, berezia izaten da, duela ia 10 urte

Juankar Balerdi preso bisitatze-za zihozazela auto istripua izan baitzuten Almeriako kartzelara bidean haren ama Argi Iturralko eta anaia Iñaki Balerdik.

Istripua gogoratu eta halakorekin berriz errepika ez dadin, dis-

persioaren amaiera exijituz eta gaixo larriak askatzeko eskatuz pankarta bana erakutsi zuten herritarrek. Horretaz gain, herriko preso eta errefuxiatuak ere gogoan izan zituzten, aurpegiaren silueta beltzak erakutsiz.

OROIMEN HISTORIKOA

Gerra piztu zenekoak gogoratzen

Iñaki Egaña historialariak "...eta gerra iritsi zitzaigun" izeneko hitzaldia eman zuen Manuel Lekuona kultur-etxean ostegun-ean. Islada Ezkutatuak, Lasarte-Oriako Oroimen Historikoaren Aldeko taldeak antolatu zuen gerraren lehen hilabetei buruzko hitzaldi hau.

Taldearen helburua, orain arte jasota dagoen informazioa herriari ezagutaraztea dela azaldu zuten Mailu Arruti eta Mikel Amenabar taldeko kideek aurkezpenean. Hauek udalarekin eta beste bi elkarterekin, Euskal Memoria fundazioa eta Lau Haizetara Gogoan koordinadorekin sinatutako hitzarmenaren berri eman zuten ere.

Gaztelaraz eta euskaraz egin zuten bai aurkezpena, baita hitzaldia ere. Gerraren abiapuntu nagusienak eta Lasarte-Orian gertatutakoak azaldu zituen. Borrokaren azken egunak nolakoak izan ziren herrian "hegazkinentzat zelai bat prestatu zutela hipodromoan edota herriko langileak fronte batzuetara joan ziren".

Hemendik bi hilabetera gerraren ondorioak azalduko dituen hitzaldia eskainiko dutela ere aurreratu zuten eta gerra garaiko haien bizipenak kontatu nahi dituzten herritarrei haiekin harremanetan jartzeko deia ere egin zuten. Horretarako 695 756 556 telefono zenbakira deitu dezakete herritarrek.



GAZTE KLUBA

Kamiseta lehiaketa irudia hautatzeko

Gazte Klubeko gaztetxoek kamiseta bat egin nahi dute partaide guztientzat baina aurretik, diseinu bat adostu behar dute. Horretarako lehiaketa berezia jarri dute martxan.

Lehiaketa honetan parte hartzeko baldintzak "0-99 urte bitarte izatea, koloretan amesten duen pertsona izatea, etxean margoak eta paperak edukitzea eta tenperekin noizbait zikindu den pertsona izatea". Aukeraketa martxoaren 1ean egingo da Gazte Klubean eta epaile arituko dira hiru aditu eta klubeko kideak. Irabazlearentzat saria Gazte Klubeko kamiseta bat izango da.

Lanak martxoaren 1a arte jasoko dira, Gazte Klubeko ordutegian edota Ttakuneko bulegoko buzoian edozein egunetan.

PARTE HARTZEA

Michelin II proiektuaren aurkezpena

Asteazkenean Lasarte-Oriako Udalak batzar irekia egin zuen Manuel Lekuona Michelin II proiektua azaltzeko. Udala ordezkariek Pablo Barrio alkatea, Nerea Sanchez eta Gorka Lizarraga zinegotziak izan ziren bertan. Hauen ahotan entzun zituzten proiektuaren nondik norakoak bertaratuak herritarrek. Aretoa goraino bete zen proiektuak interesa piztu duela adieraziz.

Ostirala arte herritarrek etxetara iritsi den galdeketa erantzun eta postontzietan utzi ahal izango dira. Horretan gain parte-hartze web berrian ere aukera dago galdeketa erantzuteko. Galdeketa erabakiorra izan ez arren, udaletik herritarren iritzia oso kontutan izango duela adierazi nahi izan zuten.



Andaluzia Eguna ospatuko du Semblantek

► *Semblante Andaluz elkarteak kultur astea antolatu du otsailaren 28tik martxoaren 3ra*

Lasarte-Oriako andaluziarrek Andaluziako Eguna ospatuko dute, hilaren 28an, eta igandera arte luzatuko duten egitaraua antolatu dute. Batetik, 28an, ostegunean udaleko eta herriko elkarteetako ordezkariak ohorezko ardoa hartzera gonbidatuko dituzte, ostiral eta larunbatean musika eta dantza ekitaldiak egingo dituzte eta ospakizun handia igandean martxoaren 3an egingo dute Semblante Andaluz elkarteak.

Jon ALTUNA IZA

Uterero bezala Andaluziarrak erkidegoko eguna ospatuko dute otsailaren 28an, Autonomi Elkarte horretako estatutua onartzeko 1980an egin zen erreferendum-a gogoratuz. Andaluziaren Eguna dela eta, Lasarte-Oriako andaluziarrek ere zenbait ekitaldi antolatu dituzte.

Egun horretan, otsailaren 28an arratsaldeko 20:00etan luntxa antolatu dute, Andaluziako ardo eta produktuak dastatzera gonbidatuko dituzte, Udaleko eta herriko beste elkarteetako ordezkariak.

Ondorengo egunetan ere beste zenbait ekitaldi burutu-

ko dira. Ostiralean otsailaren 1ean, Semblante Andaluz elkarteak bertan, 19:00etan Azabache taldeak eskainiko du bere emanaldia eta ondoren 19:30ean Merche Montes-ek kantatuko du.

Larunbatean, hilaren 2an, Semblante Andaluz elkarteak beste dantza taldeen txanda izango da. 17:00etan hasita, Gitanillos del alba, Duende Flamenco eta Zambra taldeek eskainiko dituzte beraien kanta eta dantzak. Ondoren, 19:00etan banatuko da txokolatea haurrentzat.

Andaluziaren eguneko ospakizun nagusia igandeko gozto dute herriko andaluziarrak. 11:30etan hasiko da



Semblante Andaluz elkarteak dantza eta kantu taldeetaz gozatzeko aukera izango da Andaluzia eguna ospatzeko antolatu diren ekintzetan.

Rozioko meza Zumaburuko Arantzazuko Amaren elizan. Mezan Semblante Rociero abesbatzak kantatuko du.

Eguerdikio 14:00etan harrera ofiziala egingo diete elkarteak udal ordezkariari eta Andaluziako ereserki abestuko dute. 14:30ean hasiko da Andaluziaren Eguna ospatzeko bazkaria, eta, dantzaldia arratsaldeko 19:00etatik

21:00etara egingo da. Ordu horretan emango zaie amaiera ekitaldiei.

Aldaketa zuzendaritzan

Bestalde, urtarrilaren 13an zuzendaritza berria aukeratu zuten Semblante Andaluz elkarteak.

"Semblante Rociero" abesbatzaren zuzendari José Pérez Acosta izango da ondo-

rengo urteetan elkarteak lehendakari. Aipagarria da bera izan zela andaluziarren elkarteak sortzaileetako bat eta lehen presidentea.

Lehendakariordea Juan Navarro, izango da, idazkaria Ivan Gomez eta diruzaina Joan Jose Iñigo. Kultur Arloko ordezkariak Nicolas Selles, Francisco Torres eta Consuelo Miguel izango dira.

Munduko arazo ekologikoak zineman

TXINTXARRI

Zazpigarren aldiz antolatu du Ekologistak Martxan taldeak Ekozinemaldia. Lasarte-Oria Bizirik taldearen eskutik sei film eskainiko dira astelehenean, ostegunetik, ostiralean 25, 26 eta 27an arratsaldeko 19:00etan Manuel Lekuona kultur-etxean.

Zenbait herrialdeetako arazo ekologikoak ezagutuko dituzte ikusleek, besteak beste, Hego Amerikan petrolio industriak jarri diren tokietako indioen kasuak, Somaliako hondakin toxikoen afera, Indiako Bhopal-eko

istripuari buruzko dokumental berria, Euskal Herriaren ezkutuko zor ekologikoak edo baliabideak agortzearen ondorioz jasango diren estuak.


Ekologiaren arloa jorratzen duten zenbait film aukeratu dituzte Ekozinemaldiko arduradunek. "Berrito ere zinemaldi oparo eta bete-betea izango da. Denetariko proposamenak ekarri ditugu, lan asko eta bikainak, munduan gertatzen dena hobeto ulertzeko, egoeren aurrean kokatzeko eta zerbait egiteko aukerak ikusteko" esan dute antolatzaileek. Bereziki esker-

tu dute autoreen ahalegin eta ekarpena.

Gaiak

Multinazionalen ingurugiroan eta gizartearen daukaten eraginaren aurkako erantzuna eta erresistentzia jasotzen dute Lasarte-Oriaren emango diren Kataluniako bi pelikulek, "Del vent al blau" eta "Nahuas, 20 años después".

Biek Ekuador eta Peruko egoera jorratzen dute, eta petrolioaren muga Amazonasen gero eta aurrerago doala salatzen. "Del vent al blau" Haizetik Urdirera pelikulan gainera, talde ekologistek



sarritan salatu duten Wuorani indioen egoera eta Boliviako meatzarien arazoak ere aztertzen dira.

"Euskal Herria: Ezkutuko Zorra" filmean, besteak beste, ezta inportazioa, Indiako Ozeanoko uretan gehiegizko

arantza, biodiesela ekoizteko palmondoaren erabilera eta Boliviako meatzarien arazoak jasotzen ditu.

"Tóxica Somalia" filmean herrialde hartako arazoak ikusiko dira. Gehiegizko arantzak ez ezik, industria kimiko eta nuklearren hondakin oso toxikoen isurketak ere eragin kaltegarria izan du herrialde horretan.

"Los Yes Men arreglan el mundo" filmean Bhopaleko istripua da gaia ea Down Chemical transnazonala salatzen dute. Irudimena eta umore ukitua dira nagusi.

"End Civ" filmek aldiz, baliabideak agortzearen ondorioz, zibilizazioaren amaieraren gaia planteatzen du.



ALCAR VENTANAS

Etorri gure denda berrira, Plaza Oriamendi, 2. (Lehengo Doble J)



Zuregandik hurbil



Tel: 943 37 78 68
tienda@ventanasalcar.com
www.ventanasalcar.com
www.facebook.com/VentanasAlcar

ERAKUSKETA
Plaza Oriamendi, 2
(Lehengo Doble J)
20160 - Lasarte-Oria - Gipuzkoa

TAILERRA
Ibaiondo, 4
erdisotoa 5-A

Tel: 943 37 78 68
www.ventanasalcar.com
www.facebook.com/VentanasAlcar






Jarrai gaitzazu Facebooken! gure jarraitzaile artean laister hasiko gara opariak banatzen




Me gusta

Aitor Landa herritarra laguntzeko jaialdia

► Martxoaren 9an Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek "Sentitu, pentsatu, ekin" emanaldiko bi saio eskainiko dituzte ► Kukuka eskolako eta Jalgune elkarteko lagunak ere bertan izango dira

Aitor Landa herritarrak garunezko paralisia du eta egun Galiziako zentro berezi batean dago tratamendua jasotzen. Lasarte-Oriako Udalak eta herriko pailazoek, Pirritx, Porrotx eta Marimotots jaialdia antolatu dute martxoaren 9an Aitor Landaren gurasoei laguntza emateko. Hauekin batera izango dira Kukuka eta Jalguneko lagunak ere.

Nerea EIZAGIRRE

Boris Nogales kultura arloko zinegotziak, Joxe Mari Agirretxe "Porrotx", Xabier Goitia Manuel Lekuonako gerentea eta Rosa Illaramendi udal teknikariak Aitor Landa herritarraren aldeko elkartasun jaialdia aurkeztu zuten. Hauekin batera Jesus Landa Aitorren aita izan zen lehengo astelehenean egindako aurkezpenean.

Jaialdia martxoaren 9an izango da eta honetan Pirritx, Porrotx eta Marimotots haien 25. Urteurrena ospatzen duen "Sentitu, pentsatu, ekin" emanaldiko bi saio



Prensaurrekoan Pirritx, Porrotx eta Marimototsen batera jaialdian parte hartuko duten taldeetako kideak izan ziren.

eskainiko dituzte, bata 16:30ean eta beste 19:00etan.

Hauekin batera Kukuka antzerki eta dantza eskolako dantzariak eta Jalgune elkarteko lagunak ere izango dira laguntzen.

Emanaldi bereziak

Joxe Mari Agirretxe "Porrotx"-ek azaldu zenez saio hauek bereziak izango dira, batetik

Lasarte-Orian 25. Urteurrena ospatzeko aukera izango dutelako eta bestetik pailazoek egiten duten elkartasun lanarekin lotuta dagoelako.

"Irriren Lagunak Klubeko elkartasun elkarteak elkarteen kolaboratzen du edo tarteak badaude norbanakoen kasuak laguntza behar izaten dutenak. Oraingoan Lasarte-Orian laguntxo bat daukagu,

Aitor laguntza jasotzea tokatzen zaiona," aipatu zuen.

Jaialdi honetan 25 urte hauetan pailazoek eskutik ezagunak bihurtu diren hainbat pertsonaia edo urte hauetan egindako lagunak ikusteko aukera egongo da.

Porrotxek azaldu moduan, "Amona Josefina, guk 25 urte baina hark 100 urte betetzen ditu, Anakleto ijitoa, Kintxo

Barrilete... Eta guzti hauetaz gain, Jalguneko lagunak eta Kukukako dantzariak. Emanaldi borobila izango da alde horretatik".

Laguntza

Prensaurrekoan azaldu zuten bezala, emanaldi berezi hauetako sarrerako 7 euroak Aitorren tratamendurako izango dira.

"Saioetako sarreretan lortutakoa Aitorren gurasoei laguntzeko erabiliko da", adierazi zuen Boris Nogales Kulturako batzorde buruak.

Sarrerak dagoeneko salgai daude Manuel Lekuona kultur etxean eta LasarteOria Sarean wen orrialdean.

Eta bertan egon ezin duenak ere laguntzeko beste modu bat duela azaldu zuen Joxe Mari Agirretxek, "0 eserlekua deitzen zaiona da. 2101 0048 21 0128308954 kontu korrante zerbakia dago. Sarrera 7 euro dira, baina era honetara bakoitzak nahi duena eman dezake".

Honela herritar guztiak animatu nahi izan zituzten jaialdian parte hartzea, "oso ondo pasako dugu. Asko kantatu eta dantzatuko dugu".

Mendebaldeko Saharar herriarekin elkartasuna eskertuz

Nerea EIZAGIRRE

Lasarte-Oriako Udalak otsailaren 12an Mendebaldeko Sahararekin bat taldeak sustatutako mozioa onartu zuen. Taldeak, Ailem Etleimidi sahararra eta Yal-lah Gazte ekimeneko kideekin batera, asteazkenean eskaintako prentsaurrekoan Udalari eta alderdiei eskerrak eman eta mozioko hainbat puntu azpimarratu nahi izan zituen.

Lehenik eta behin, Udalaren izenean zeuden Tasio Arrizabalaga eta Alaitz Mendizabal zinegotziei eskerrak eman zizkieten.

Elkarretaratzea eta bandera

Mozioan onartutakoaren arabera, Sahara Errepublikoa aldarrikatu zeneko urteurrenarekin bat etorritik, otsailaren 27an arratsaldeko 19:30ean Lasarte-Oriako udaletxe aurrean egingo den elkarretaratzea egingo da. Honetaz gain,

egun osoan zehar Mendebaldeko Saharako bandera herriko udaletxean zintzilikatu egongo da.

Salaketa

Honetaz gain, giza eskubideen aldeko 24 aktibistek Marokoko epaileek ezarritako zigorra salatu dute.

El Aiuneko Gdeim Izik kanpamentua altxatu ondoren atxilotu zituzten aktibistak eta haien aurkako epaiketa militarra bertan behera uzteko eskatzen zen Udalak onartutako mozioan.

Halabaina, epaiketa egin eta bizi arteko zigor ezarri dizkiete horietako bederatzi pertsonari eta beste 30 eta 25 urte arteko kartzela zigorra. "Proba gabeko epaiketa izan da, ilegala eta salagarria," aipatu dute.

Epaiketa eta honen emaitza salatzeke, aste honetan hainbat ekitaldi egingo zirela jakitera eman zuten. Martxoaren 2an, Madrilen Estatu mai-

lako manifestazioa izango da, esate baterako. Eta bertara joateko Gasteiz eta Donostiatik autobusak antolatu dira oraindik zehaztu gabeko ordu eta lekutik.

Honetan parte hartu nahi dutenek Yal-lah Gazte ekimena taldearekin jarri behar da harremanetan facebook bidez.



Mendebaldeko Sahararekin bat taldeak prentsaurrekoan eskerrak eman zizkion Udalari.

Pizzeria Bar Jateetxea
Rummy

Etorri probatzera!

Giro berria, jende berria, Lasarte-Oria herriko pizzeri berrian

Etxean egindako masak

Kale Nagusia 71
20160 Lasarte-Oria • Tel.: 943 245565

Eguneko menua
Pizzak
Hamburgerak
Pintxoak



ATLETISMOA.-

Bruño, Veroniz eta Busto Euskadiko txapeldunak

Veronizek Estatuko txapelketarako gutxienekoa egin eta lau atleta jubenil doaz Antequerara

Kadete, Junior eta Jubenil mailako Euskadiko txapeldun berriak daude LOKEko atletismo sailan. Jon Ander Bruño, Yeray Veroniz eta Eneritz Busto, hauek otsailaren 16an Donostiako Anoetako belodromoan izan zen txapelketan lortu zuten urrezko domina. Baina ez ziren taldeak lortutako domina bakarrak izan.

LOKEko atletek lehengo asteburuan, otsailaren 16an, junior, jubenil eta kadete mailako Euskadiko txapelketan parte hartu zuten eta lan ederra egin zuten. Oscar Goikoetxea entrenatzailearen neska mutilek lau urrezko domina, bi zilarrezko eta bost brontzezko lortu zituzten Euskadiko txapelketan.

Gauzak honela, LOKEk dituen Euskadiko txapeldun berriak Jon Ander Bruño, Yeray Veroniz eta Eneritz Busto dira.

Jon Anderrek junior mailan jauzi hirukoitzean lortu zuen garaipena, 12 metroko jauziarekin eta luzera jauzian hirugarren izan zen.

Jubenil mailan, Yeray Veroniz-ek 60 m. lasterketa irabazi zuen, 7.32 segundorekin.

Oscar Goikoetxea entrenatzaileak aipatu digunez, Veronizek lortutako markari esker, martxoaren 9 eta 10ean Antequeran izango da Estatuko txapelketan.

Eneritz Busto kadeteak 60 m. hesi-lasterketan eta altuera proban lortu zituen urrezko bi dominak. "Altueran gainera, bere marka hobetu zuen 1m 60 eginaz", adierazi digu LOKEko entrenatzaileak.

Honetaz gain, 60 m. lasterketan hirugarren izan zen eta 600 m. proban bosgarren.

Gainera, jubenil mailan Ane Galardik zilarrezko domina eskuratu zuen luzera jauziko proban eta 60 m. lasterketan brontzezko postuan iritsi zen helmugara.

Maider Rekondok pisua bere proba dela erakutsi eta



Eneritz Busto, Yeray Veroniz eta Jon Ander Bruño atletak Donostiako Antonio Elorza belodromoan.

GAIZKA ORMAZABAL

bigarren postuko domina eraman zuen etxera, baita jauzi hirukoitzeko brontzezkoa ere.

Kadeteetan ere dominak lortu ziren, Oihana Igarrizek pisuko proban hirugarren postuan amaitu baitzuen.

Itoitz Rodriguez jubenilak bi probatan parte hartu zuen 400 m. lasterketan eta luzera jauzian eta bietan 4. postuan amaitu zuen.

Oscar Goikoetxeak aipatu digunez, "domina gehiago izan zitezkeen, baina Maria Eugi lesionatua zegoen eta ltoitzek bi probatan bakarrik parte hartu zuen". Hauek Ane Galardi eta Yeray Veroniz-ekin batera astebete dute jubenil mailako Estatuko txapelketa prestatzeko.

Bestalde, Olasagasti ahizpe, Saioa jubenil mailan eta

Idoia kadete mailan, 60 m. lasterketan parte hartu zuten eta biak finalerdietan izan ziren.

Gipuzkoako txapelketa

Baina ez dira ziurrenik pista denboraldian lortzen dituzten azken dominak izango. Asteburu honetan, maila absolutuko Gipuzkoako txapelketan izan direlako.

IGERIKETA.-

Itsaso Tolosa Euskal Herriko txapeldun junior mailan

Buruntzaldea IKT-ko lagunek Euskal Herriko txapelketa eta Kirol Zehaztasun Ligako jardunaldia izan zituzten lehengo asteburuan.

Ruñean ospatu zen absoluto, promesa eta junior mailako Euskal Herriko txapelketan. Ederki bili ziren Borja Apeztegiaren igerilariak. Itsaso Tolosa junior mailan 200 m. bizkar probako txapeldun izan eta beste sei domina ere lortu zituzten.

Itsasok gainera, 200 m. bizkar probako Txapeldunorde izan zen absolutuen mailan.

Honetaz gain, 50 bizkar proban brontzezko domina eskuratu zuen Tolosak bere marka personala hobetuz.

100 m. bizkar proban lortu zituen beste bi dominak. Honetan, bere marka personala hobetzeaz gain, junior mailan zilarrezko domina eskuratu zuen eta brontzea absolutu mailan.

Azkenik, 200 m. libre proban bere marka personala hobetu zuen.

Mikel Esnal izan zen domina lortu zuen bigarren igerilari. 100 m. libreko igerileku luzeko marka hobetzea lortu zuen eta 50 m. libre proban Esnalek brontzea lortu zuen.

Haitz Mitxelenak ere domina lortu zuen 200 m. tximeleta proban, promesa mailako Euskal Herriko Txapeldunorde izan baitzen. 100 tximeleta proban laugarren postuan amaitu zuen.

Garazi Alkortak 50 m. tximeletan hartu zuen eta bere marka hobetu zuen.

Eta Jone Vazquezek 400 m. eta 800 m. libre frogetan hartu zuen parte. 800 metroetako proban bere igerileku luzeko marka personala hobetu zuen.

Igerilari hauetaz gain, Iñigo Ibarburu eta Naiara Lizaso infantilek ere parte hartu zuten Espainiako txapelketako gutxienekoa izan do honetatik gertu baitaude.

Naiarak 50 m. libre eta 100 m. libreetan Espainiako gutxienekoak lortzea zuen helburu. "Bietan oso gertu geratu zen



Mitxelena, Tolosa eta Esnal Euskal Herriko Txapelketan lortutako dominekin.

marka bikainak eginez," aipatu du Borja Apeztegia entrenatzaileak.

Iñigo Ibarburu berriz, bere marka onenetan aritu zen. 50 tximeletan bere marka personala hobetu zuen eta 100 tximeletan "bere marka onenetan ibili zen".

Kirol Zehaztasun Liga

Taldeko txikiak, benjamin eta 16 alebin, Ordizian izan

ziren Kirol Zehaztasun Ligako hirugarren jardunaldian hainbat probatan parte hartzen.

Apeztegiak azaldu duenez, "gure igerilari guztiak beren markak hobetzen ikusi genituen eta beraz, bide onetik jarraitzen dugu".

Gainera, Ligako Gipuzkoa osoko sailkapen orokorrean, Buruntzaldea IKT-ko zenbait igerilari lehen postuetan izan ziren.

2004 urteko Joane Arza-Iluz bigarren izan zen 50 bular proban.

2003 urteko mutiletan Unai G. Somovilla Gipuzkoa osoko azkarrena izan zen 100 bular proba osatzen. Unai-ek, egindako 1'45"94arekin adinako errekor berri bat ezarri zuen gainera. Leire Martin bigarren izan zen 2003 urtekoen 100 bular proban.

2004. eta 2003. urtekoen arteko 6x25 tximeleta errelebo mistoko taldea izan zen lehen sailkatua.

Nahia Jie Villamediana nagusi izan zen 100 libreetan eta 800 libreetan hirugarren postuan sailkatu zen "lehen aldiz egiten zuen frogan".

2000 urteko mutilen artean, Jon Ibargoyen laugarren izan zen 100 libreetan.

2001 urteko Jon Soto bosgarren izan zen 200 bular proban.

Azkenik, 4x50 bizkar erreleboetan, bai mutilek eta baita neskek ere, hirugarren postua lortu zuten.

Agenda

Astelehena 25 - asteazkena 27, 19:00etan, Manuel Lekuona kultur-etxean



Zor ekologikoa aztertzen

Zazpigarren Ekozinemaldia, zinema eta zor ekologikoaren zinemaldia berriro ere gure herrian da. Lasarte-Oria Bizirk taldeak eta Ekologistak martxan elkarteek antolatutako hiru emanaldi izango dira.

Hauetan multinazioanlek eta enpresa handiek haien herrietan izan duten eragina aztertzen da film laburren bitartez. Aurten gainera, Euskal herriko kasua ere aztertzen da "Euskal Herria: la deuda oculta" filmean. Honek Boli-viako meatzaritzarekin lotuta-

ko arazoari eta gure ezta inportazioari heltzen die.

Emanaldiak:

Astelehena 25

"Del viento al azul" eta "La travesía de Chumpi"

Astearte 26

"Fin CIV" eta "Euskal Herria: la deuda oculta"

Asteazkena 27

"Los Yes Men arreglan el mundo" eta "Los Nahua, 20 años después"

Lasarte-Oria

Andaluzia eguna

SEMBLANTE ANDALUZ ELKARTEAREN EGOITZA Osteguna 28, 20:00etan

Andaluzia Erkidegoko egunean basierako emango zaie ospakizunei luntx batak.

Ostirala 01, 19:00etatik aurrera

Elkarteko Azabache taldearen dantza emanaldia eta ostean, Merche Montes abeslariaren kontzertua izango da.

Larunbata 02, 17:00etatik aurrera

Elkarteko Gitanillos del Alba, Duende Flamenco eta Zambra haur, gazte eta helduen taldeen dantza emanaldia.

Ostean, haurrentzako txokolate gozoa dastatzeko aukera.

Igandea 03, 11:30ean

Meza rocieroa Semblante Rociero abesbatzak girotua, **ARANTZAZUKO AMAREN ELIZAN.**

14:00etan, udal ordezkarien harrera egin eta ereserkia abestuko da. Ondoren, bazkari herrikoia egingo dute.

19:00etan, dantzaldia izango da.



Musika

AMA BRIGITARREN KOMENTUAN

Ostirala 01, 19:30ean

"Ehun-Ari Guitarras D+" Nafarroako Goi mailako kontserbatorioko gitarra taldeak kontzertua eskainiko du, Danok Kide elkartearen VIII. Musika topaketen barruan.

Erakusketa

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Hilabete osoa

PROSALUS elkartearen "Elikagaia izateko giza eskubidea" panela ikusgai dago.

Ostirala 15-Astelehena 01

Paco Altuna herritarren arte lanak ikusgai izango dira.

Elkartasuna

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Larunbata 09, 16:30ean eta 19:00etan

Aitor Landa herritarra laguntzeko Pirritx, Porrotx eta Marimototsek haien 25. Urteurrena ospatzen duen "Sentitu, pentsatu, ekin" emanaldia eskainiko dute. Bi saio izango dira eta Kukuka antzerki eta dantza eskolako dantzariak eta Jalgune elkarte lagunak ere izango dira bertan. Sarrera, 7 euro.



Hernani

Ipuin-kontalaria

UDAL LIBURUTEGIA

Astearte 26, 17:30etatik aurrera

Lur Kortak ipuinak kontatuko dizkiei 3 eta 7 urte arteko haurrei. Bi txanda izango dira bata 17:30ean hasiko da, 3 eta 4 urte arteko haurreni zuzendua eta bestea 18:00etatik aurrera, 5 eta 7 urte artekoentzat.

Usurbil

Ikastaroa

ARTZABAL ZAHAR EGOITZA

Asteazkena 27, 18:30etatik aurrera

Izar Arregi psikologoak droga mendetasunaren inguruko hitzaldia eskainiko du.

Herritarren txokoa

Ostadar SKT-eko bulego ordutegi aldaketa

Gaurtik aurrera, Ostadar SKT-ko bulego ordutegia aldatzen da. Bulegoa 18:00etatik 20:00etara egongo da irekia astelehenetik ostiralera.

Donostiako Kantu Jiran eskertza eta aurkitutako gauzak

Donostiako Kantu Jiraren 10. urteurrena ospatzeko jaialdia egin zen otsailaren 16an eta antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete honetan parte hartu zutenei.

Era berean, emakumezko lepo-zapi bat eta linterna bat jaso zituztela jakitera ematen dute.

Odol ateratzeak

Hileroko azken asteleheneko bezala, odol ateratzeak egingo dituzte Osasun Zentroan gaur, otsailaren 25ean, arratsaldeko 17:30etik 21:00etara.

Galdutako gauzak

Udaltzainek jakitera eman dutenez, gauza hauek daude jasota, ezkontza erantzuna, bi ordulari, sei betaurreko graduatu, patinete bat, euritako onurak bat eta bost mugikor.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteke epean jaso behar dituzte. Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Biyak Bat elkarteak kuota

Biyak Bat Erretiratuen elkarteak bere bazkideei jakin arazten die urteroko kuota, 8 euro, martxo amaiera arte ordaindu ahalako dela egoitzako bulegoan goizeko 10:30etik 12:30era.

Era berean, hiru hilabete hauetan, 2011 eta 2012 urteko bazkidetza ordaintzen ez dutenei baja emango zaiela jakitera ematen du elkarteak.

85 urtetik gorako bazkideek ez dute ordainketarik egin behar.

Marrakzi eta margo klaseak

Lasarte-Oria Bizilagun Elkarteak jakinarazten du, marrakzi eta pintura klaseetan izena emateko aukera dagoela. Klaseak asteazken eta ostiraletan dira, 18:30etik 20:30era Manuel Lekuona kultur-etxe 2. solairuan. Interesa duten herritarrek gerturatu daitezela klase orduetan.



Korrika-ko kilometroak salgai

Korrika 18-ko kilometroak salgai daude. Lasarte-Oriako elkarte, alderdi politiko edo banakakoek erosi dezakete kilometroa. Gure herrian kilometro erdiak izango lirateke.

Kilometro erdiren bat hartu nahi dutenek Munterri-AEK-ra hurbildu edo 943 372 863 telefono zenbakira deitu behar dute.

Korrika laguntzaile txartelak

Korrika 18-ari babesa emateko laguntzaile txartelak honako lekueetan daude salgai: Jaldi Kafe-antzoa, Artizar taberna, Ilargi taberna eta Munterri-AEK-n.

12 euro balio duen txartela erosi, laguntzaile direla adierazten duen pina eta Euskal Herriko ehunka komertzioetan beharpenak eskuratuko dituzte herritarrek.

Korrika 18-ko arropa salgai

Korrika 18-aren arropa, kamisetak, sudaderak, etab. erosi nahi duten herritarrek badute lekua. Materiala Urruzola mertzerian, Kale Nagusia 41 zenbakian, salgai egongo da.

Eskutitza

Nekatuta gaude

"La Esperanza" Bizilagun elkarteak, Lasarte-Oriako herri autobusa sustatzearan alde egin duenak, honakoa azaltzen du:

Hilabete batzuk dira erabilgarri eta beharrezkoa den zerbitzu hau martxan dagoela eta horregatik eskertuta gaude.

Halabaina, elkarteak Zelaialdeko autobus geltokia mantentzeko egin dituen ahaleginek ez dute behar bezalako erantzunik izan udal agintarien aldetik.

Horregatik, publikoki Oriako auzokideek duten arazo honi erantzuna emateko eskatzen dugu.

"La Esperanza" Bizilagun elkarteak
(Erredakzioan itzulita)

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Paco Altuna Artista

“Kalkulaezina da esku hauek bizitza osoan zehar egin duten lana”

■ Paco Altuna artista lasartearren obrak ikusgai daude martxoaren 1a bitartean Manuel Lekuona kultur-etxean ■ Guztira 28 eskulan biltzen ditu erakusketak

Lasarte-Oriako memoria historikoaren zati bat da Paco Altunaren lana (Lasarte, 1935), umiltasunez halako baieztapenak ukatu egiten dituen arren. Egindako artelaren artean, garai bateko Lasarte-Oriako eraikuntza, etxe eta baserrien maketak daude, Uistin baserria edota Plazaolako trenaren zubia kasu. Baina Zubietako eliza, Ibarrola Haundi baserria edota Kontxako barandila bezalako obrak ere landu dituzte 78 urteko esku zimurtuek. Ez Chillida eta ez Oteiza, Valentziako “fallak” egiten dituztenak miresten ditu, herritar artisauek, bera bezalako eskulangle finak.

Jon ALTUNA EGITEGI

Geltoki Kalean jaioa da Paco Altuna, gaur egungo Jalgiren tokian zegoen “Txintxua” janari den-daren gainean hain zuzen, 3. pisuan. Ondo gogoan ditu 36ko gerraosteko beharrak, errazionamendua edota euskaraz hitz egiteko ziztuzten arazok. Urteek aurrera egin dute, ilea zuritu zaio, zimurrak aterata. Baina Pacoren begi berdexkek gazte diraute, ez dira aldatu, hurrengo artelana izango denaren bila.

Nondik datorkizu artearekiko zaletasuna?

Haurra nintzela, irakurtzen jakin baino lehen idazten ikasi nuen. Maistrak egiten zituen letrak kopiatzen nituen eta ez zuen sinesten letrak neuk eginak zirenik. Beraz, errepikatze eskatzen zidan, eta letrak txukun egiteko gai nintzela ikustean, pixka bat harrituta geratzen zen nire gaitasunarekin...

Gainontzean bizitza osoan marraztu izan dut. Paper bat hartu eta zirriborro batzuk egiten ditut beti, gehienetan marrazkiak zakarrontzira joaten diren arren.

Zerekin inspiratzen zara zure margoak eta eskulanak egiteko orduan? Nondik ateratzen dituzu ideiak?

Batzuetan aurrean topatzen dudanetik: argazkiak, postalak, armariak... Besteetan beharrezkoa da imajinazioa edukitzea eta burua lanean jartzea.

Gustuko dudalako egiten dut, ez nau nekatzen eta izugarri lasaitzen nau gainera. Ez nuke ezerengatik aldatuko daukadan zaletasuna. Pazientzia beharrezkoa da noski, baina gustatzen bazaizu, egin amaitzen duzu. Ahal dudana arte jarraituko dut.

Zein da obrak egiteko erabiltzen duzun materiala?

Kola-eskaiola eta pintura dira erosten ditudan gauza bakarrak. Gainontzeko material guztia hor zehar topatzen dudana da.

Esate baterako naturatik harriak, hondar fina, kontxak... hartzen ditut, dena da baliagarria. Berriki Hendaian izan naiz harea biltzen, baina kontuz ibili behar da, lehortzen utzi behar da harea, duen gatzak eskulanak ziritu egiten ditu eta.

Zer edo zer falta bazait herri guztia zeharkatzeko gai naiz behar dudana horren bila, baina gutxienez espero duzun gauzek balio izaten dute artelanak egiteko, freskagarri latak, botoiak, txapakumeak, alandreak...

Non duzu tailerra?

Piñutegin, badakit orain Tere-sategi bezala ezagutua dela, baina niretzat beti izango da Piñutegi, txikitari hala deitzen geniolako herriko haurrek. Bertan dauzkat txabola eta lanerako tresnak. “La Ponderosa” deitzen zion lursaila erosi nionak txabolari.

Zenbat ordu pasatzen duzu egunean bertan lanean?

Batzuetan bi, besteetan lau, zortzi, edo batera ez... Egunaren arabera. Obra batzuek ordu askotako lana dute, beste batzuek gutxiago... Baina gauza jakina da ezer egiten ez duen gizonak pentsamendu txarrak izaten dituela!

Garrantzitsua da gure adinean aktibo mantentzea. Gehiago esango dizut, batzuetan bazkalordua iritsi eta ez dut apetiturik izaten, egiten ari naizenarekin guztiz kontzentratuta egoten naizelako; gainera memoriak trazionatu egiten gaitu zenbaitetan... Izugarri gustatzen zait egiten dudana.



Paco Altuna lasartearra albo banatan berak egindako Donostiako Kursala zein Gernikako juntetxea eta arbola dauzkala.

Animaliak gobernatzeko eta baratze lanetan ere ibiltzen zara...

Badauzkat animaliak bai, ardiak eta untxiak. Ondo daramatzat bi lanak, konpainia egiten didate, gehienetan bakar-bakarrik aritzen baina iz txabolan lanean. Baratza ere badaukat eta zaindu egiten dut hori ere.

Hurrengo hilabeteetarako proiekturik baduzu esku artean?

Okendoko frontoi zaharra egitea dut buruan eta ondoan duen etxea ere bai, apaizaren etxea deitzen geniona. Etxe hori xarmanta da lau aldeetatik. Itzeta da, eta lana egiten asko disfrutatuko dut. Egurrezko eta burdinazko balkoioak dauzka, leiho politak... Askok gustatzen zait etxe hori, begiz jota dut.

Hala ere, berriz lanean hasterako bi hilabete edo pasako dira...

Salgai jartzen dituzu egindako obrak?

Ez dut obrak salgai jartzea pentsatzen. Dirua lehen behar nuen, gazte garaian, orain jadanik ez. Nahiago dut egiten ditudan lanak oparitu. Sal-duta zenbat aterako dut asko jota? 20 euro? Askok ere balio gehiago du oparitzeak bai niretzat, bai oparia jasotzen duenarentzat.

Esaterako, eginda ditudan etxe eta baserrietan bizi den edo bizi izan den jendea sekulako ilusioa egiten dio nire lanak opari jasotzeak. Erakusketara etorri, urteetan bizi izan ziren etxe edo base-

“Egiten ditudan eraikinen lanak oparitu egiten dizkiet urtetan bertan bizi izan direnei. Etxea edo baserria ikusi eta bihotza uzkuratzen zaie”

ria ikusi eta bihotza uzkuratzen zaie.

Erakusketari dagokionean, zer nolako harrera izan duzu?

Bisita asko jaso ditut. Batzuek muuak eta dena eman dizkidate! eta beste batzuek zoriandu eta “Artista hutsa zara Paco!” ere oihukatu didate. Jendea orokorrean asko gustatu zaiola uste dut. Ez dut uste hainbestearaino denik baina beno... Duela hilabete batzuk ere erakusketan bizi izan nuen kultur-etxean, lan asko ditut eginak!

Zeintzuk uste duzu direla artista on batek eduki beharreko oinarriko osagaiak?

Picassok behin esan zuen pintatzen jakiteko pintatu, pintatu eta pintatu egin behar dela. Horrela ikasi dut nik, behin eta berriro eginez, guztiz autodidakta izan naiz eta pena dut, gaur egun haurtxoak pintura kurtsiloetan ikusten ditudanean inbidia ematen didatelako. Gustura ikasiko nukeen nik ondo marrazten. Baina familia anapas gendeen dirurik jateko ere... Ezin ninduten pintura eskola batera Donostiara eramane.

Umetako orotzapenak etorri zaizkizu gogora...

Eskola nazional frankistetan ikasi nuen, eta beranduago gaur eskoletan ere aritu nin-

zen. Egia esan, hor egin nuen aurrera pixka bat, baina ezer gutxi, ez pentsa...

Egungo artista gazteek beste-lako erraztasunak dituzte ezta?

Gaur egun ordenagailuak direla eta ez direla, oso garrantzitsua dago teknologia. Ni nerone ez naiz sekula baten aurrean eseri.

Bide batez, esan behar dut ikasteko ere baliagarri izan zaidala teknologia berria. Gogoan dut etxeko igogailu berria egiten ari zirenean ikasteko baliatu nituela obrak, erabiltzen zuten material ezberdina behatzen aritu nintzen eta ideiak hartu nituen.

Nire buruari galdetzen dihardut ea zenbat lan egin ote duten aurrean ditudan esku hauek 78 urtetan...

Kalkulaezina da. 10 urterekin jada lanean hasia nintzen “caddie” moduan Lasarteko golfean, jauntxoei makilak eramane eta bolak jasotzen.

Gerora aitzurrak, pikatxoak, hormigoia hausteko mailuak heldu ditut eta baita kroako bultzatu ere, Michelin 35 urtez egin nuen bezala. Espero dut oraindik esku hauek lana egiten jarraitzea. Oraintxe bertan txabolako lanarekin jarraitzeko asmoa dut, noski! Beti bakarrik egoten naiz han, bake ederrean.